

Uxue Urien Razkin

A maila • 2 saria

Iritsi da nire burua aurkezteko unea, lana bera prestatzea baina zailagoa egiten zaidana sarri. Horrelakoa izango litzateke aurkezpen arrunta edo klasikoa: Uxue Urien Razkin, 17 urteko beasaindarra.

Esaldi honekin batera, halaber, hainbat galdera datorzkit burura: Nor naiz ni izatez? Sei hitz horiek guztiz definitzen al naute? Zerk definitzen du pertsona bat? Bakoitzaren gauza onek ala txarrek? Bere birtuteek ala gabeziek? Egia esan, horrenbeste pentsatu eta erantzunik gabeko erantzunen ondoren, nahiago dut ez jakin. Zahartzaroan, agian, otuko zait nire buruaren aurkezpen duin bat baina bitartean nahiago dut pertsona aldakor bat izan, norabiderik gabe aurrera egin eta unean uneko bizipenez disfrutatzen ikasi. Ondo pasa!



Doinua: Badira hiru aste

POZAREN ISLA

Jaiki, lanean jardun, lo egin
egin dute aroz aro
Pausu berak errepikatzeaz
asper egina bahago
Eguneroko errutinatik
apurtxo bat haratago
Bizirik sentiarazten gaituen
beste mundu bat badago

Neguko egun hotz ilunetan
euria goian ta behean
Aterkia mela-mela dela
jaka bustia soinean
Etxera sartu eta beheko su
goxoaren babesean
Eguneko irri ederrena
marrazten zait masailean

Kostata esnatu lehen argi
izpiarekin batera
Denak lo ikustean oroitu
dela aste bukaera
Hoztutako hankekin banoa
maindire haien artera
Deskribaezina aurpegiko
irriaren zabalera

Azterketa astea amaituz
heltzen da asteburua
Kalimotxo eskuan dela
piztu da bozgorailua
Kanta eta dantzatuko dugu
reggaetoi nahiz aureskua
Parranda honek ordainduko du
egindako esfortzua

Herritik aldendu eta mendi
dotoreen magalean
Zeru urdin oskarbi ta larre
orlegi haien artean
Txori askeen txorrotxioak
isiltasuna lehertzean Bizi-
bizirik sentitzen naiz ni aire
garbia arnastean

Zerrenda berezi hau idazten
ahalko nuke jarraitu
Baina orain zure txanda denez
gauzatxo batez oroitu
Nahiz eta ezer idazteko
ez duzula iruditu
Zu pozik bizitzeko bizitzak
nahi beste arrazoi ditu